

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Ingelesak badoaz Basoratik eta Bushen gerizpetik

Gordon Brown-ek pieza bat mugitu du Londrestik, eta Irakeko xake-taulan jokoa arras aldatu dela dirudi aste gutxitan. Irailaren lehen egunetan hasi dira erretiratzeko ingelesak beren kontrolpean zegoen Basorako hirigunetik baina mugimendua abuztuko opor garaian abiarazi dute.

GEORGE BUSH PRESIDENTE iparramerikarrak dagoeneko soziorik ez dauka Irakeko abentura bukatzeko. Nazioarteko harremanetan aspalditik eskumutilla duen eta Europar Batasunaren barruan infiltratuaren lana egin dion Erresuma Batuak Irakeko gerrari akabera bere aldetik bilatzea erabaki baitu uda honetan.

Herritar askok harriduraz jakin du, telebistako irudiengatik, ingelesek alde egin dutela Basoran, Irakeko bigarren hiririk handiengan, zeukaten egoitza nagusitik. George Bush bera komunikazio mailako kontraerasoa egin beharrean aurkitu da, eta britainiarren tankeak Basorako hirigunetik ateratzen ziren egun berean Bagdadetik azaldu da, bere soldaduek “gauzak ongi egingen badituzte” batzuk etxeratzen hasi dela iragartzeko.

Britainiarren erretreta, hala ere, abuztuan egitekoa zen eta hilabetez atzeratu dute iparramerikarren presioz. Iritzi publikoa aurrez bigundu beharra baitago holako tragoa irentsarazi baino lehen. Londresko egunkariak abuztuan zehar beren orrietan azaldu dituzte militar ingelesak eta amerikarren egonezinak. Albiste horien bilduma *World Socialist Web Site* gune trotskistan eskaini du Chris Marsdenek.

“Washingtongo eta Londresko militarrek —dio Marsdenek irailaren 1eko data daraman kronikaren hasieran—

elkarri botatzen diote errua Basoratik tropa britainiarrak ateratzea dela eta. Ofizial amerikarrek diote Britainia Handiaren ‘Saigoneko aroa’ dela. Armada britainiarrak bere haserrearen adierazi du hitz horiengatik eta bertako komunikabideek AEBei aurpegiratu diete Britainia Handia erabiltzea estakurutzat beraiek matxino irakiarrek menderatu ezin izan dituztela disimulatzeneko”. Giro kaxkarra senideen artean.

Eztabaida piztua zen Londresko gobernuak uda honetan Iraketik 500 militar atera eta bertan kopurua 5.000tan uztea agindu zuelako. Kopuru hau hain txikia izanik, ezin da ulertu AEBetako armada nagusiaren laguntzaile eta osagarri izatekotan ez bada. Hala ere, Gordon Brownek behin eta berriro errepikatzen zuen egokitzapen bat zela, erretiradarik ez zela izango.

Baina komunikabideetan bezala iritzi publikoan ordurako zabaldua zegoen ingelesek porrot eginga zutela beren eginahalean. “Britainia Handiak —idatzi du Chris Marsdenek— Basoraz gain Hego Irak osoaren kontrola galdu du. Edozein gisaz, hau ez da katastrofe militar eta politiko handiago baten adierazgarri nabarmena baizik, amerikarrek burutu duten okupazioa horretara iritsi delako eta partikularzki amerikarrek eraso militarra gogortzeko erabakiak kale egin duelako”.

Abuztuaren 19an *The Independent* egunkariak bi jeneral britainiarren iri-

tziak bildu zituen. Hauek zioten Londresko gobernuak ezin zuela ezer hobetik espero Hego Iraken eta gehiago itxaron gabe han zeuden 5.500 soldaduek atera egin behar zirela. “Komandanteek nahi dute —zioen *The Independentek*— Basorako Jauregia irakiarrei itzultzea. Han dauden 500 soldadu britainiarrek egunero 60 mortero-tiro jasaten dituzte eta harantz janariak eramateko konboiak ‘gauko misio suizidak’ deitzen dira”. Irail hasieran horixe egin dute ingelesek, eta lehen Hego Iraken zabalduz zeuden tropak, 5.000 militar denetara, Basorako aireportuan daude orain bildurik.

Gordon Brownek bizia maite du

Abuztuaren 20an titulu deigarri hau ipini zuen munduko ekonomi egunkaririk garrantzizkoenetakoa den *Financial Times* britainiarrak: “How British army lost Basora” (Basora nola galdu duen armada britainiarrak). Ikusi nahi ez duenak ere ikusteko moduko oharra. Kronikaren barruan jeneral erretiratu batek argiro aitortuko zuen Basorako aireportuan 5.000 militar ingeles gertatzea sinbolikoa zela, Londreseko Washingtongo gobernu eta Bagdadekoak sustatzen dituela erakusteko.

Armada amerikarretik laster iritsi ziren erantzunak. Alegia, oraindik Iraken garaipena posible dela eta ingeles alderantziz estatubatuarrek ez dutela errenditzeko asmorik. Jack Keane jene-





Hona militar britainiar bat eta beste bat irakiarra —bi hatzekin garaipen zeinua egiten duena— Basora inguruko errepide batean. Gisa honetakoa zen armada britainiarrak bere buruaz saldu nahi zuen irudia: Irakeko armadari laguntzeko lanetan, kaleko istiluei aurre egiteko ekipamendua jantzita, jarrera nahiko patxadatsuan... Saddam Hussein agintetik kendu ondoren, trantsizio aldi laburrean Iraken aginte berria azkar egonkortuko zela uste zuten orduan. Orain ofizial ingelesak kexu dira iparramerikarrek inbasioaren ondorenerako batere planik ez zutelako eta lehenengo hilabeteetan gauzak zuzendu ordez erabateko anabasa nagusitzen utzi zutelako. Egunetik egunera gaiztotu da egoera Basoran eta Irakeko hegoalde osoan ere bai. Erretreta ondoren, honela mintzatu zaio Patrick Sanders lotinant-koronela *The Independent* egunkariari: “Erasotzen ziguten milizia batzuk nazionalistak dira, ez dituzte tropa atzeritarrak nahi beren lurraldean. Basorako bortizkeria %90ean atzerriko tropen kontrakoa zen, eta beharbada gu joandakoan bortizkeria hori baretu egingo da. Horregatik ziurrenik guk alde egiteko garaia zen”.

rala honela mintzatu zen: “Etsipena eta frustrazioa eragiten ditu ikusteak Basoran lehen nahiko ondo zegoela egoera eta azken aldian erabat hondatu dela. Bush presidenteak berak azken saioa egin zuen Gordon Brown konbentzitzeko, Cap Davidera konbidatuta, baina alferrik aritu zen.

Britainiarren arazoa, izan ere, ez da gogorik eza, ezintasuna baizik. Datuotan datza. Erresuma Batuko armadak denetara 100.000 soldadu dauzka, gehi Territorial Army delakoaren beste 25.000. Irakeko inbasioaren unerik gorenean 35.000 militar zeuzkan Londresek bertan, baina laster hasi behar izan zuen horiek gutxitzen, derrigortuta. Gehiago murriztuko zituen baldin eta matxinoen erasoak ez balira espero baino gogorragoak izan.

Azken hilabeteotan amerikarrek

estrategia berria abiarazi dute Irakeko matxinoen kontra, *Surge* izeneko operazioa. Baina honen emaitzak kaltegarri gertatu zaizkie ingelesei, yankiek Irakeko erdi aldean egiten duten presioaren ondorioz orain sua lehen askoz lasaigo zeuden hegoaldera eta ipar aldeko Kurdistanera zabaldu delako.

Bereziki gogorra *Financial Times*en abuztuko pasarte hau: “Britainia Handiak ez zuen galdu behar Iraken hegoaldea. Rumsfeld eta Pentagonoaren inkompetentziak galdu du Irak, Bagdad konkistatu ondorengo anarkiagatik”. Ingelesen ustez, hegoaldeko probintzietan ez zen horrelako kaosik gertatu, Ali al-Sistani aiatola buru duen hierarkia xiitak egoera kontrolatu zuelako. Baina konstituzio berria zela eta Irak xiiten esku utzi zenean, alde batetik, sunitak eta yihadistak erasorik gogorre-

nean hasi ziren berriro, eta bestetik, xiiten artean barne borrokak lehertu ziren.

Britainiarren egoera konplikatzan duen beste faktorea Afganistan da. Hemen ere, NATOren misioaren baitan, 7.000 soldadu dauzkate ingelesek, eta oso zail egiten zaie behar dituzten 2.000 gehiago Irak ez beste inondik eramatea. Besteren artean, Alemania, Frantzia eta Italiak uko egiten baitiote hara militar gehiago bidaltzeari. Irakeko inbasioaren kontra dauden komunikabideetako batzuek aldarrikatzen dute handik atera eta indarra Afganistanen kontzentratzea, hemen mendealdeko armadek egiten dutena legezkoa delakoan.

Komunikabide britainiarren artean, zer esanik ez idazle eta intelektualetan, asko dira tropak Iraketik berehala ateratzearen aldekoak. Baina Chris Marsdenek dioenez ez da hori gertatzen alderdi politiko nagusien artean, hauetan demokrata liberalak ez beste inor ez dago-eta erretretaren alde. Baina Londresko agintariak gero eta bakarrago ageri den George Bushen itzaletik ateratzea erabaki dute. Tony Blair joan ondoren, Gordon Brownek errazago dauka hori gainera.

Ingelesek geopolitikan beren bidea egin nahi dutela erakusteko, irailaren 4an *The Guardian*ek honako albisteak plazaratu du: zenbait buruzagi sunita eta xiitak adostasuna lortu dutela Finlandiako Helsinkin antolatutako bake konferentzia isilpeko batean, oinarritzat hartuta Ipar Irlandako eta Hegoafrikako bake prozesuak. Britainiarrak beren aldetik lanean? Ulertzekoa da: Irak ingelesek asmatu zuten. ■

<http://www.argia.com/nethurbil.php>
helbidean, gai honi buruzko informazio
gehiago eta Interneteko loturak.



**Konfiantza
delako
garrantzitsuena**

Egunez egun
zure konfiantza
geureganatzen dugu,
etengabe produktu
berriak eta
zerbitzu berriak
bilatzearen bidez.

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 4 - 20084 OONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net
TEL: 943 420 824

G A R R A N T I A